



# Arte Hezkuntza: Arte plastikoak eta ikusizko arteak





TOBY MELVILLE-BROWN «If you build it, I'll draw it»

## Ingurunea aldatzeko ideiak

Arte Hezkuntza – Arte plastikoak eta ikusizko arteak.  
Lehen Hezkuntzako 6. Maila

## **Ingurunea aldatzeko ideiak**

---

**Arloa:** Arte Hezkuntza –Arte plastikoak eta ikusizko arteak–

**Maila:** Lehen Hezkuntzako 6. maila

**Saio kopurua:** 10

### **Proposamenaren justifikazioa**

Jarduera-sekuentzia honen bidez, ikasleak inguruneari buruzko gogoeta sentikorra egitera eraman nahi ditugu; begiratu, behatu, ezagutu, identifikatu, interpretatu eta proposatzera, besteak beste.

Ikasleek gogoeta egingo dute ibili ohi diren tokiaz, hainbat artistak egindako proposamen eta hausnarketak ezagutu eta aztertuko dituzte, beste pertsona batzuek egindako proiektuak baloratuko dituzte eta, horretan oinarrituta, ibili ohi diren tokietan aldatzeko modukoak diren alderdiak aurkituko dituzte, horren zergatia justifikatuko dute eta aldatzeko proposamena ere egingo dute.

Jasotzen duten informazioa barneratzea da kontua, horrekin hitz egitea eta aldaketa-proiektu bat pentsatzea; proiektu hori grafikoki gauzatu ez ezik, ezagutarazi ere egin beharko dute.

Hartarako, hamar lansaiotan garatu beharreko hainbat jardueratan antolatu dugu sekuentzia. Jarduera horien bidez egin beharreko lanak oinarritzko kompetentziak neurri handiago edo txikiagoan garatuko ditu.

### **Testuingurua**

Joseph Beuys artista alemaniarra, 1982an, artearen munduan parte-hartze handienetakoa izan behar zuen lan bat planteatu zuen. «7.000 haritz» zuen izenburu, eta Alemaniako Kassel hirian harri bertikal baten ondoan haritz bat ipintzea zen kontua. Hala nahi zuen orok landatzeko haritz gazte bat eta basaltozko (harri mota bat) zutabe bat jasotzen zituen, baita parte hartu izana egiaztatzen zuen diploma bat ere. 1987an amaitu zuten 7.000 haritzak zegozkien 7.000 harrien ondoan landatzen.

### **Arazoa**

Joseph Beuysen ustez, artea pertsona askok parte har zezaketen ekintza izan behar zen. Eta pentsatzen zuen era horretan, pertsona askoren laguntzari esker, artea mundua aldatzera irits zitekeela. Egin al zenezakete bizi zareten tokia hobetuko lukeen arte-proiekturen bat?

### **Xedea**

Bizi diren inguruneari buruzko gogoeta egitea, guztiok horrekiko erantzukizuna dugula kontzientziatzeko.

### **Ataza**

Arte-proiektu bat egitea ezagutzen duten tokiren baterako aldaketa-

proposamen gisa. Proiektua grafikoki gauzatuko dute, eta horren berri emango dute ondoren.

### **Oinarrizko kompetentziak:**

#### Zeharkakoak:

Komunikazio-kompetentzia eta kompetentzia digitala. Jarduerak: 4, 5, 7, 8, 9 eta 12.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. Jarduerak: 1, 2, 3, 6, 8, 10, 11 eta 12

Elkarbizitzarako kompetentzia. Jarduerak: 3, 4, 6 eta 8.

Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. Jarduerak: 4, 5, 7, 10 eta 12:

Izaten jakiteko kompetentzia. Jarduerak: 2, 6, 10, 11 eta 13:

#### Berariazkoak:

Arterako kompetentzia. Jarduera guztiak.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia. Jarduerak: 1, 4, 5 eta 10.

### **Helburu didaktikoak:**

- Ingurunearekiko interesa agertzea, hiri- edo landa-ingurunean etengabe dauden elementuetara hurbilduta.
- Ingurunean irtenbide artistiko baten bidez konpon litezkeen arazoak detektatzea.
- Ingurunean antzematen dituzten arazo eta gabezia batzuentzat irtenbide artistikoak proposatzea.
- Pertsona eta kolektibo ezberdinen arte-adierazpenak aztertu eta baloratzea.
- Irudi eta ekoizpen artistikoak asmo batez sortzen direla eta eginkizun soziala dutela ulertzea.
- Toki bat eraldatzeko proiektu bat garatzea.
- Arte-proiektu batean informazioa bilatzeko eta ikertzeko talde-lanak zer garrantzi duen baloratzea.

### **Edukiak:**

- Bizi diren espazioari behatzea eta esploratzea.
- Hobetu ahal diren ingurunearen alderdiak aurkitzeko jarrera irekia.
- Sentipenak eta oharrak hitzez azaltzea.
- Ohar grafikoan edo argazkien bidez inguruneko alderdi nabarmenei buruzko informazioa jasotzea.
- Askotariko dokumentazioa (testu idatziak, irudiak, gertuko inguruneko iturriak...) bilatzea eta erabiltzea, banakako edo taldeko proiektu artistikoak garatzeko.
- Informazio eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, teknologiei buruzko irudiak eta dokumentazioa bilatzeko, bai eta egindako lanak zabaltzeko ere.
- Lan berriak sortzeko artelanek eskaintzen eta iradokitzen dituzten ezaugarri formalak, teknikoak eta materialak aztertzea.
- Euskarri teknologikoak erabiltzea, arte-sorkuntzarako.
- Banakako edo taldeko proiektuak planteatzea askotariko gaiak ikertzeko

- eta horiei irtenbide plastikoa emateko.
- Norberaren adierazpen-aukerak baloratzea, inhibiziorik gabe, naturaltasunez eta arazoak konpontzeko jarrera edukita.
- Beste pertsona batzuen iritziekiko eta lanekiko errespetua eta interesa, norberaren jakintza-prozesuaren zati gisa.
- Dokumentu-zorro bat egitea, banakako edo taldeko sortze-prozesua biltzeko eta gogoeta zein ebaluazioa laguntzeko.

## **Jardueren sekuentzia:**

### Hasierako fasea

1. jarduera
  - 1.1. Aldatu al dezake mundua arteak?
2. jarduera
  - 2.1. Zure etxetik ikastetxerako ibilbidea.
  - 2.2. Ohar guztiak denen aurrean aurkeztea.

### Garapen-fasea

3. jarduera
  - 3.1. Gure ibilbideak marraztuz.
4. jarduera
  - 4.1. Artistek hiri-espazioan lan egitean zer egin duten ikusiko dugu.
  - 4.2. Arte-proiektuak jendaurrean aurkeztea.
5. jarduera
  - 5.1. Ikusiko dugu beste artista batek nola lan egiten duen.
  - 5.2. Lan egingo dugu JRk egin duen moduan.
6. jarduera
  - 6.1. Ikusitakoari buruzko gogoeta.
7. jarduera
  - 7.1. Artistei ikusita bezala lan egingo dugu.
8. jarduera
  - 8.1. Egiatzko artista bihurtuko gara.
  - 8.2. Zer aldatu nahi dugun adostuko dugu.
  - 8.3. Gure proposamenak elkarri trukatuko dizkiogu.

### Aplikazio- eta komunikazio-fasea

9. jarduera
  - 9.1. Gure aldaketa-proposamena.
10. jarduera
  - 10.1. Gure lana hasieratik antolaturik.
  - 10.2. Zer egin dugun jakinaraziko dugu.
  - 10.3. Gure lanak erakutsiko ditugu.
11. jarduera
  - 11.1. Egindako lanari buruzko gogoeta egingo dugu.

### Orokortze- eta transferentzia-fasea

12. jarduera
  - 12.1. Ikasitakoa aplikatzea.
13. jarduera
  - 13.1. Ikasitakoari buruzko gogoeta egingo dugu.

## **Ebaluazioa**

*Adierazleak:*

- Ikusizko ingurunean adierazpen- eta komunikazio-elementuak detektatzen ditu.
- Hiri- eta natura-ingurunean interes estetikoko ezaugarri formalak atzematen ditu.
- Teknologiako hainbat euskarri erabiltzen ditu adierazpen- eta komunikazio-asmoz.
- Lana garatzeko behar diren baliabideak bilatzen ditu hainbat iturri erabiliz.
- Bere adierazpen- eta komunikazio-xedeekin bat datozen erreferenteak eta ideiak bilatzen ditu ingurunean eta ekoizpen artistikoetan.
- Garaiko eta beste momentu batzuetako arte-adierazpenak aztertu eta baloratzeko interesa agertzen du.
- Arte-proposamenei buruzko iritzia azaltzen du, aldez aurretik ikasitakoetan oinarritutako irizpideen bitartez argudiatuz.
- Bere proiektuen emaitzak egoki antolatzen eta justifikatzen ditu.
- Arte-arazoak konpontzeko bere ideiak proposatzen ditu, konfiantzaz.
- Erroreak ikusiz gero, prozesua berriro hasteko edo antolatzeko gauza da.
- Norberak zein besteek egindako lanak eta ekarpenak errespetatzen ditu.
- Taldean lan egiten du eta lan horretaz arduratzen da.

*Tresnak:*

Hasierako ebaluazioa


1. jarduera
  - 1.1. Aldatu al dezake mundua arteak?

Prozesuko ebaluazioa

2. jarduera
  - 2.2. Ohar guztiak denen aurrean aurkeztea.
6. jarduera
  - 6.1. Ikusitakoari buruzko gogoeta.
8. jarduera
  - 8.3. Gure proposamenak elkarri trukatu dizkiogu.
10. jarduera
  - 10.1. Gure lana hasieratik antolaturik.

Ebaluazio batutzailea

11. jarduera
  - 11.1. Egindako lanari buruzko gogoeta egingo dugu.
12. jarduera
  - 12.1. Ikasitakoa aplikatzea.
13. jarduera
  - 13.1. Ikasitakoari buruzko gogoeta egingo dugu.



TOBY MELVILLE-BROWN «If you build it, I'll draw it»

## Ingurunea aldatzeko ideiak

Arte Hezkuntza – Arte plastikoak eta ikusizko arteak.  
Lehen Hezkuntzako 6. Maila

## HASIERAKO FASEA

---

### 1. JARDUERA

#### 1.1 Aldatu al dezake mundua arteak?

Joseph Beuys artista alemaniarra, 1982an, artearen munduan parte-hartze handienetakoa izan behar zuen lan bat planteatu zuen. «7.000 haritz» zuen izenburu, eta haren bidez harri bertikal baten ondoan haritz bana ipini zuten hainbat pertsonak, Alemaniako Kassel hirian. Hala nahi zuen orok landatzeko haritz gazte bat eta basaltozko (harri mota bat) zutabe bat jasotzen zituen, baita parte hartu izana egiaztatzen zuen diploma bat ere. 1987an amaitu zuten 7.000 haritzak zegozkien 7.000 harrien ondoan landatzen.

Joseph Beuysen ustez, artea pertsona askok parte har zezaketen ekintza izan behar zen. Eta pentsatzen zuen era horretan, pertsona askoren laguntzari esker, artea mundua aldatzera irits zitekeela.

Pentsatu al zenezakete bizi zareten tokia hobetuko lukeen arte-proiekturen bat?

Zehaztuko dugu zer esan nahi dugun «arte-proiekturen bat pentsatzea» adierazten dugunean. Hauxe nahi dugu:

- Egunero ibiltzen zareten tokiak nola diren begiratzea; eraikinek, kaleek, fatxadek eta abarrek zer itxura duten.
- Zoladurari begiratzea (lurzorua), hiri-altzariei begiratzea (esertzeko bankuak, paperontziak, farolak...).
- Gogoeta egitea zer atsegin duzuen eta zer ez, bestelako formetan, koloreetan, eraikuntza irudikatuetan pentsa dezazuen, zuen ingurunea hobetuko zuen guztian, alegia.

Zerbait argi ez badago, orain une egokia da zer ez duzuen ulertzen galdetzeko.

Gauza horiek guztiak ikusi eta aztertu ondoren, arte-proiektu bat antolatu eta garatuko duzue. Baina ez zarete hutsetik hasiko, beste pertsona batzuek egindako lana hartuko baituzue oinarritzat.

Helburua da ezagutzen duzuen tokiren bat aldatzen saiatzea, eta, amaitutakoan, gainerako taldekideei eta, zergatik ez, baita beste pertsona batzuei ere, zuen proposamena jakinaraztea.

Hasteko, Joseph Beuys artistaren proiektua hobetoxeago ezagutuko dugu. Hartarako, bikoteak egingo ditugu, eskuinean duzun ikaskidearekin elkartuta. Ondoren, helbide hauetan ageri diren irudiak ikusi eta zer dioten irakurriko duzue:

[http://www.elgrancapital.com/elgrancapital\\_cast/new-page/los-7-000-robles-que-planto-joseph-beuys-en-1982.html](http://www.elgrancapital.com/elgrancapital_cast/new-page/los-7-000-robles-que-planto-joseph-beuys-en-1982.html)

<http://paradojasdelpaisaje.blogspot.com.es/2011/08/7000-eichen.html>



Zer iruditu zaizue?	Ondo	Ezberdina	Bitxia	Bestelakoak

Idatz itzazue deigarri gertatu zaizkizuen 3 gauza:	Zergatik?

## 2. JARDUERA

### 2.1 Zure etxetik ikastetxerako ibilbidea.

Jarduera hori banaka egingo duzue. Helburua hau da: zuen etxetik ikastetxera egiten duzuen ibilbidea aztertzea, zer ikusten duzuen, kaleak, etxeak, zuhaitzak eta abarrak.

Zuetako batzuk autobusez joaten zarete, edo autoz agian, eta oinez egiten duenik ere egongo da seguruenera. Autobusez joaten zaretenok geralekura iritsi arte zer ikusten duzuen azertu behar duzue, edo leihotik zer ikusten duzuen, baita ibilbide osoan oinez nor doan ere. Ondoren dagoen txantiloia hartuta, ibilbidean erne egongo zarete bihar, eta ahal adina eremu beteko dituzue.

IZENA:

#### EGITEN DUDAN IBILBIDEA

Nondik ateratzen naizen, edo non bizi naizen:

Nola egiten dut ibilbidea?	Autobusez	Oinez	Autoz	Bestelakoak

Ondoren, zuen ibilbideko xehetasun batzuei begiratu beharko diezue. Begiratu batez ere ondoren adierazitako guztiari:

#### AURKITUTAKO ERAIKINAK

Zer materialez daude eginda?	Harriz	Adreiluz	Kristalez	Bestelakoak

Nolakoak dira eraikin horiek?	Luzeak	Txikiak	Denetarik dago

Ongi zainduta daude edo hondatuta daude, pintura falta al zaie?	Ondo	Txarra	Erdipurdikoa

Zenbat urte izango dituzte?	Asko	Gutxi

--	--	--

**IKUSITAKO HIRI-ALTZARIAK**

Bide publikoan dauden objektuak dira hiri-altzariak, hala nola bankuak, paperontziak, autobus-geralekuak...

Aurkitu al dituzu farola ugari?	Bai	Ez

Berdinak al dira ikusitako farola guztiak?	Bai	Ez

Ikusten ohi duzu paperontzirik?	Bai	Ez

Esertzeko bankurik ba al dago?	Bai	Ez

**BIDETIKO FLORA**

Zure etxetik ikastetxeraino lorategi, parke eta abarrik ba al dago?	Bai	Ez

Zuhaitzik?	Bai	Ez

**GAUZEN ARGIA ETA KOLOREA**

Zeharkatutako kaleak nolakoak dira argiari dagokionez?	Argitsuak	Laiotzak

Eta nolakoak tamainari dagokionez?	Zabalak	Estuak

Nolakoak dira kale horietan ikusitako koloreak?	Alaiak	Goibelak

**ETA GAINERA**

Eremu hau zuretzat da; egin ohi duzun ibilbidean ikusi eta nabarmendu nahiko zenituzketen gauza guztiak jaso ditzakezu hemen:

--

**2.2 Ohar guztiak denen aurrean aurkeztea.**

Txantiloia betetakoan, gainerako taldekideei ibilbidean zer ikusi duzuen adieraziko diezue.

Bildutako informazioaz gain, gehien eta gutxien zer gustatu zaizuen jakinaraziko duzue.

IZENA:

GURE IBILBIDEA

Ibilbidean hau gustatu zait gehien:

Ibilbidean hau gustatu zait gutxien:

Laburbildu zure ikaskideei, hitz gutxitan, zure ibilbidea nola den:

## GARAPEN-FASEA

### 3. JARDUERA

#### 3.1 Gure ibilbideak marraztuz.


Bigarren jarduera honetan hirunaka lan egingo duzue; antzeko ibilbidea duten pertsonekin batera jarriko zarete, hain zuzen. Hartarako, hiruko taldeak antolatuko ditugu, ikasleen etxeen arteko gertutasuna aintzat hartuta.

Orain, mapa batean jasoko ditugu zuen ibilbideak. Mapa hori inprimatutako mapa baten fotokopia izango da, eskura duzuen, edo, bestela, eremu horren inprimaketa Google maps zerbitzutik eskuratua:

<http://maps.google.es/maps?hl=es&tab=w>

Mapa horretan hauek adieraziko dituzue:

- Taldeko hiru kideen ibilbideak, kolore ezberdinetan.
- Aurreko jardueran gutxien gustatu zaizkizuela-eta adierazitako tokiak, objektuak eta abarrak.



Zuen ibilbideetan ikusitakoaren arabera, badira gauza batzuk bestelakoak izatea nahiko zenituzkeenak. Baina agian ez zaizue ezer bururatzen, edo ez dakigu oso ongi zergatik ez zaizkigun gustatzen... Egin nahi dituzuen aldaketetarako ideiak eman aurretik, ikus dezagun beste pertsona batzuek zer egin duten.

#### 4. JARDUERA

##### 4.1. Artistek hiri-espazioan lan egitean zer egin duten ikusiko dugu.

Daniel Canogar artistak, nazioartean proiektzio handienetako bat duen artista espainiarra, honela zioen: «*Aktibismo-era hoberik badago artea baino*». Eta arrazoa duela pentsa dezakegu, arteak nekez lortuko duela eraginik gure gizartean. Ezin dugu ahaztu, ordea, irudi zenbaitek horretarako zer ahalmen duten, **Picassoren Gernika** pinturak kasu, gerraren aurkako ikur unibertsal bihurtu denak. Gaur egun, artista batzuek beren lana kalean aske eta doan sortzen dute *-street art-*, eta kalea gizarte-adierazpeneko eremu aldarrikatzen dute.

Zer egiten duten ezagut dezagun:

Aurreko jarduera egiteko osatutako taldeetan, honako orri honetan azaldutako arte-proiektuak bisitatuko dituzue: <http://www.urbanfire.es/categoria/street-art/>. Ikusi, aztertu itzazue eta, hori egin ostean, aukeratu ezazue deigarrien egin zaizuenak. Geroago, fitxa bat beteko duzue, eta, hori erabiliz, zein eta zergatik aukeratu duzuen behar bezala azalduko duzue taldekideen aurrean.

Proiektuaren izena:	
Non egin duten:	
Nork egin duen:	
Proiektua zertan datzan:	
Hautatu eta jarri hemen gehien gustatu zaizuen irudia:	

--	--	--	--

Hori eta ez beste bat zergatik aukeratu duzuen:	
---	--

#### **4.2. Arte-proiektuak jendaurrean aurkeztea.**

Talde guztiek fitxak betetakoan, taldeko bozeramailea hautatuko duzue (urtebetetzea beranduen duena, esaterako), eta gainerako ikaskideei azalduko diezue landu duzuen proiektua nolakoa den.

### **5. JARDUERA**

#### **5.1. Ikusiko dugu beste artista batek nola lan egiten duen.**

Aurreko jardueran aztertutako orriaren barruan, JR hiri-artista frantsesaren lana ere badugu; artea bazterreko auzoetara eramatea erdietsi du artista horrek, museo bat bisitatzeko aukerarik inoiz izango ez zuen jendearengana, eta horrelakoei beren mundua aldatzeko plataforma eskaintzen saiatu da.

Gaur egun, artista hori «*Inside Out/Mundua barnetik aldatzen*» izeneko proiektua lantzen ari da, eta bertan jende askok parte hartzea nahi du. Lagundu nahi duten pertsona guztiek argazki bana bidali behar diote, bertan beren edo beste baten aurpegia zuri-beltzean dagoela. Artistak argazki horren 90 bider 135 cm-ko posterra itzultzen die, eta ordainetan ahalik eta eragin publiko handieneko tokian jarri behar dute ikusgai. JR artistak honela dio: «*Egjaz axola dizuenengatik jaikitzea nahi dut arte-proiektu global batean parte hartuz, eta mundua eskularru bat izango balitz bezala elkarrekin irauli ahal izatea*».



Binaka eta, adibidez, kolore bereko arropa duen pertsona bat hautatuta, JR artistaren proiektu horretako lan batzuk bisitatuko dituzue (<http://www.insideoutproject.net/en>). Eta sar zaitezte, halaber, artistaren eskaerari nola erantzun dioten ikus daitekeen orrian; proiektu horren argazkiak dauden toki guztiak jasotzen dituen mapa ikusiko duzue hor: <http://www.insideoutproject.net/en/map>

Eta, azkenik, ikus ezazue bideo hau:

<http://www.jr-art.net/projects/inside-out-project-group-actions>

Baina nor da JR eta zer lortu nahi du lan horiekin?


Irakurri orain hiru orriok eta erantzun egindako galderari:

[http://cultura.elpais.com/cultura/2011/03/12/actualidad/1299884401\\_850215.html](http://cultura.elpais.com/cultura/2011/03/12/actualidad/1299884401_850215.html)

[https://es.wikipedia.org/wiki/JR\\_\(fot%C3%B3grafo\)](https://es.wikipedia.org/wiki/JR_(fot%C3%B3grafo))

<http://www.creads.es/blog/talento-a-seguir/talento-seguir-jr-el-fotografo-creativo-y-comprometido>

<p>Nor da? Nola du izena? Nongoa da?...</p>	
<p>Zer adierazpide erabiltzen ditu? –pintura, argazkia, marrazkia, eta abar–</p>	
<p>Non erakusten ditu lanak? Museoetan, galerietan...?</p>	
<p>Norekin egiten du lan? – jende arrunta, jende ospetsua...–</p>	

<p>Aukeratu ezazue gehien gustatu zaizkizuen lanetakoren bat eta itsatsi eskuinaldean.</p>	
<p>Artista horri dagokionez, zer egin zaizue deigarrien?</p>	

## 5.2. Lan egingo dugu JRk egin duen moduan:

Haren proiektuaren zati bihurtuko gara. Oraingoan ere binaka lan egingo dugu, aurreko jardueran izandako kide berarekin. Egitezue argazki bat zeuen buruei, kamera, mugikor edo tableta bat erabiliz. Bilatu Interneten zuen auzoaren edo ikastetxearen argazki bat eta bata bestearen gainean jar ezazue.

Horretarako, <https://www.sumopaint.com/home/#app> webguneko aplikazioa erabiliko duzue, edota zuen irakasleak emandako beste edozein.

Igo bi argazkiak, ipini ezazue zuen aurpegia eraikinaren edo eraikinen gainean, hobekien gelditzen den tokian. Zuen aurpegiaren geruza zuri-beltzera pasatuko duzue –Doikuntzak, desasetu–, eta nahi duzuen gardentasuna emango diozue –geruzaren leihoan, opakutasuna–. Kito, orain inprimatu, gorde dezakezue, gelakide guztiekin poster bat sortu dezakezue, gelako blogera igo... badakizue JR artistaren modura lan egiten.



## 6. JARDUERA

### 6.1 Ikusitakoari buruzko gogoeta.

Orain aurreko jardueretan ikusitako proiektuei buruzko gogoeta egingo dugu banaka.

#### KALEKO ARTE-PROIEKTUAK

Zer iruditzen ikusitako proposamenak?	Bitxiak	Ezberdinak	Politak	Bestelakoak

Zein izan zaizu deigarrien? Esan zergatik:

Nolako eragina dute, zure iritziz, garatuta dauden inguruko pertsonen bizitzan?	Bai	Ez
Pertsonen arteko harremana hobetzen dute		
Hirietako bizi-kalitatea hobetzen dute		
Hiriak berroneratzen laguntzen dute		
Gehitu nahi dituzun bestelako ideiak		

## 7. JARDUERA

### 7.1. Artistei ikusita bezala lan egiten hasiko gara.

Aurrerago irudi bat duzue. Eta, bi edo hirunaka jarrita, proposatutako etxearen fatxada aldatu beharko duzue. Taldeak antolatzeko, atari bakoitian bizi diren pertsonak bilatu behar dituzue, zuena ere bakoitia bada, edo, bestela, atari bakoitian bizi direnak bilatu behar dituzue. Zalantzarik baduzue, zuenetik gehien hurbiltzen den zenbakia dutenekin elkartuko zarete.

Irudia editatzeko programa bat erabiliko duzue jarduera egiteko (lehen erabilitako bera). Baina lanari ekin aurretik fatxadan zer gehitu nahi duzuen pentsatu beharko duzue: zuek egindako marrazki bat, zuen argazki bat, webgunean aurkitu duzuen zuen gustuko irudi bat...

Zer jarriko duzuen erabakitakoan, ireki programan emandako irudia zein gehitzea erabaki duzuen, fatxadan ahalik eta hobekien egokitu, eta, kito, baduzue. Emandako irudi horretan fatxadaren gainean zuzenean marrazteko aukera ere baduzue.

Gorde eta ipin ezazue nonbait –gelan, blogean...– zuen ikaskideek egindakoeekin batera, eta taldekideekin horiei buruz mintzatu.





## 8. JARDUERA

### 8.1. jarduera. Egiazko artista bihurtuko gara.

Etiket ikastetxera egindako ibilbideetan ikusitako arazo batzuei irtenbidea ematen saiatuko gara orain.

Atsegin ez zenituzten tokiak zehaztu dituzue 3. jarduerako mapan. Orain, antzeko ibilbideak zenituzten hiru laguneko taldeetan jarrita, mapan zehaztutako toki, edo objektu, horren edo horien argazkiak aurkitu edo zuek egin beharko dituzue, edo haiek marraztu, bestela.

Marrazki eta argazki horiekin txosten bat egingo duzue, eta irudien ondoan toki edo objektu horretan zer ez duzuen guztiz ongi ikusten idatziko duzue.

IZENA:

ZER DEN (kalea, eraikina, parkea, farola, bankua...):

IRUDIA:

GUSTUKO ZER EZ DUGUN:

--	--	--	--

### 8.2. Zer aldatu nahi dugun adostuko dugu.

Jarduera amaitzeko, birmoldatu beharreko toki edo objektu bat erabaki beharko duzue. Taldeko kide bakoitzak hautatuetatik bat aukeratu beharko duzue. Birmoldatu, margotu, berriro apaindu nahi duzuen toki, eraikin edo hiri-altzarien elementu hori aukeratutakoan, honako galdera hauei erantzungo diezue:

**TALDEKO KIDEAK:**

--

**ZER ALDATU NAHI DUGUN (kalearen, plazaren, eraikinaren, parkearen, objektuaren edo dena delakoaren izena):**

--

**ZERGATIK ALDATU NAHI DUGUN:**

--

**NOLAKOA IZATEA GUSTATUKO LITZAIGUKEEN:**

--

### 8.3. Gure proposamenak elkarri trukatuko dizkiogu.

Gure lan-proposamena garatu aurretik, proposamenak beste talde batzuek egindakoekin trukatuko ditugu, zerbait aldatu beharko balitz ere, lanari ekin baino lehen. Landutako tokitik urrutien jardun duen taldearekin trukatuko duzue proposamena.

**Identifikatzen al da zer toki aldatu nahi duten? Esan zergatik:**

--

**Argi adierazten al dute zergatik aldatu nahi duten? Esan zergatik:**

--

Erraz ulertzen al da nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen? Esan zergatik:

## **APLIKAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-FASEA**

### **9. JARDUERA**

#### **9.1. Gure aldaketa-proposamena.**

Birmoldaketa proposatzeko unea da orain. Dagoeneko badakizue zer aldatu nahi duzuen, baita beste pertsona batzuek zer egin duten ere. Hortaz, saia zaitezte aldaketarako proposamen grafiko bat egiten.

Orain arteko talde berberetan lan egingo dugu oraindik.

##### *9.1.1. Zirriborroak eta probak:*

Jarduera garatzeko, **inprimatuak dituzuen irudi horien gaineko hainbat zirriborro eta proba egingo dituzue lehenik.**

Hau proposatzen dizuegu:

- Irudien gainean, ipini azetatoak, kalko-papera, landare-papera...
- Irudien gainean ipinitako paper horietan marraztea, kalkatzea, aldatzea.
- Paper horiek koloreztatzea, ebakitzea, irudien gainean mugitzea, harik eta gustuko duzuen irtenbideren bat topatzen duzuen arte.
- Marraztea, orobat, koloretako paperen gainean, koloretako kartoi meheen gainean, horiek ebakitzea, irudien gainean jartzea, eta, hautatutako toki edo objektu horri dagokionez zer lortu nahi duzuen, hura lortzen ahalegintzea.

##### *9.1.2. Digitalizatutako proposamena:*

Atsegin duzuen aldatzeko ideia bat lortzen duzuenean, proposamen landuagoa egingo duzue irudia editatzeko programaren bat erabiliz. Sumopaint, (<https://www.sumopaint.com/home/#app>) edo Paint izan daiteke; azken hori ordenagailuko programa bat da eta hemen aurkituko duzue: «*hasiera, programak, osagarriak*». Zuen irakasleak emandako beste edozein ere erabili ahalko duzue.

1. Ireki ezazue aldatu nahi duzuen tokiaren irudi digitala jasotzen duen artxiboa.

Irudi digitala ordenagailuan ikus daitekeen irudia da. Taldean egindakoren bat edo Interneten aurkitu duzuen irudiren bat izan liteke. Irudi horietako bakar bat ere ez badator bat nahi duzun horrekin, tokiaren beste irudi bat egin dezakezue zuen argazki-kameraz.

2. Ordenagailua erabiliz behar beste aldaketa egingo dituzue zuen zirriborroetan nahi zenuten irudi horretara iritsi ahal izateko.

Ireki duzuen irudiaren gainean, zuen ordenagailuko programaren bidez, behar den guztia aldatuko duzue paperezko zuen zirriborroen antza izan dezan. Hau da, gainean koloreztatu dezakezue, haren gainean zerbait itsatsi (txertatu), gauza berriak marraztu...

3. Inprimatu emaitza.

Nahi zenuten irudia lortutakoan, paperera pasako duzue.

Hemen dituzue hainbat aukera:

- lehenengoan, eremu batzuk koloreztatuta daude
- bigarrenean, gauza berriak marraztu dira
- hirugarrenean, beste irudi batzuetatik hartutako elementuak txertatu dira.



## 10. JARDUERA

### 10.1 Gure lana hasieratik antolaturik.

Jarduera amaitzeko, informazio guztia antolatu behar duzue. Kartoi mehe handi baten gainean hasieratik egindako lan guztia ordenatzen saiatuko zarete, ondoren taldeko gainerakoei jakinarazi ahal izateko.

Lehen jardueratik hasita, hau da, gure bideetan egindako oharretatik abiatuta, egin ditugun ordena berean jarriko ditugu lan guztiak.

1. Lehenik ipiniko dituzue taldeko kide bakoitzak egindako oharren emaitzak jasotzen dituzten fitxak.
2. Ondoren jarriko duzue taldeko kide bakoitzaren ibilbideak eta atsegin ez zenituzten tokiak jasotzen zituen irudia.
3. Horren ostean, eraldatzeko aukeratu duzuen tokia identifikatzen duen irudi eta esaldi edo hitz bat gehituko duzue, eta zehazki zer ez zitzaizuen gustatzen eta aldatzen saiatzea zer erabaki duzuen idatziko duzue.
4. Artistengandik zer ikasi duzuen erakusten duen irudiren bat jasoko duzue gero.
5. Aldaketa egiteko kontuan hartu dituzuen zirriborroak eta ideiak (artistek zer egin duten, zuen argazkiak, marrazkiak eta abarrak) egokien iruditzen zaizuen moduan jarriko dituzue gero (egin diren ordenaren arabera, irudi motaren arabera...).
6. Bukatzeko, zuen amaierako proposamena erantsiko duzue.

Adibide gisa, izan litekeen emaitza bat duzue hemen:

## 1 PLANGINTZA

Ibilbidean bildutako informazioak


1. Lehen jardueratik hasita, hau da, gure bideetan egindako oharretatik abiatuta, egin ditugun ordena berean jarriko ditugu lan guztiak.			
1. Lehenik ipiniko dituzue taldeko kide bakoitzak egindako oharren emaitzak jasotzen dituzten fitxak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Ondoren jarriko duzue taldeko kide bakoitzaren ibilbideak eta atsegin ez zenituzten tokiak jasotzen zituen irudia.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Horren ostean, eraldatzeko aukeratu duzuen tokia identifikatzen duen irudi eta esaldi edo hitz bat gehituko duzue, eta zehazki zer ez zitzaizuen gustatzen eta aldatzen saiatzea zer erabaki duzuen idatziko duzue.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Artistengandik zer ikasi duzuen erakusten duen irudiren bat jasoko duzue gero.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Aldaketa egiteko kontuan hartu dituzuen zirriborroak eta ideiak (artistek zer egin duten, zuen argazkiak, marrazkiak eta abarrak) egokien iruditzen zaizuen moduan jarriko dituzue gero (egin diren ordenaren arabera, irudi motaren arabera...).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Bukatzeko, zuen amaierako proposamena erantsiko duzue.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

2. Ondoren jarriko duzue taldeko kide bakoitzaren ibilbideak eta atsegin ez zenituzten tokiak jasotzen zituen irudia.			
1. Lehenik ipiniko dituzue taldeko kide bakoitzak egindako oharren emaitzak jasotzen dituzten fitxak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Ondoren jarriko duzue taldeko kide bakoitzaren ibilbideak eta atsegin ez zenituzten tokiak jasotzen zituen irudia.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Horren ostean, eraldatzeko aukeratu duzuen tokia identifikatzen duen irudi eta esaldi edo hitz bat gehituko duzue, eta zehazki zer ez zitzaizuen gustatzen eta aldatzen saiatzea zer erabaki duzuen idatziko duzue.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Artistengandik zer ikasi duzuen erakusten duen irudiren bat jasoko duzue gero.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Aldaketa egiteko kontuan hartu dituzuen zirriborroak eta ideiak (artistek zer egin duten, zuen argazkiak, marrazkiak eta abarrak) egokien iruditzen zaizuen moduan jarriko dituzue gero (egin diren ordenaren arabera, irudi motaren arabera...).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Bukatzeko, zuen amaierako proposamena erantsiko duzue.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

3. Horren ostean, eraldatzeko aukeratu duzuen tokia identifikatzen duen irudi eta esaldi edo hitz bat gehituko duzue, eta zehazki zer ez zitzaizuen gustatzen eta aldatzen saiatzea zer erabaki duzuen idatziko duzue.			
1. Lehenik ipiniko dituzue taldeko kide bakoitzak egindako oharren emaitzak jasotzen dituzten fitxak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Ondoren jarriko duzue taldeko kide bakoitzaren ibilbideak eta atsegin ez zenituzten tokiak jasotzen zituen irudia.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Horren ostean, eraldatzeko aukeratu duzuen tokia identifikatzen duen irudi eta esaldi edo hitz bat gehituko duzue, eta zehazki zer ez zitzaizuen gustatzen eta aldatzen saiatzea zer erabaki duzuen idatziko duzue.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Artistengandik zer ikasi duzuen erakusten duen irudiren bat jasoko duzue gero.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Aldaketa egiteko kontuan hartu dituzuen zirriborroak eta ideiak (artistek zer egin duten, zuen argazkiak, marrazkiak eta abarrak) egokien iruditzen zaizuen moduan jarriko dituzue gero (egin diren ordenaren arabera, irudi motaren arabera...).	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Bukatzeko, zuen amaierako proposamena erantsiko duzue.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

## 2 GAUZATZEA

Mapa batean arazoak eta ibilbideak kokatzea



Tokiaren irudiak



Artistek zer egin duten jakiteko informazioa



Llanera -Asturias-

Stavanger -Suecia-

## 3 APLIKAZIOA

Aztertutako zenbait irtenbide



#### 4 BUKAERAKO EMAITZA



### 10.2. Zer egin dugun jakinaraziko dugu.

Talde bakoitzak zer egin duen azalduko die gainerako ikaskideei.

Hartarako, zuen kartoi mehea horman itsatsi eta lan-prozesua modu ordenatuan jakinaraziko duzue, hots:

- zer aukeratu zenuten
- tokiaren edo objektuaren irudiak nola egin zenituzten
- ezagutu dituzuen artistengandik zer ikasi duzuen
- aldaketa egiteko zer ideia izan zenituzten
- zuen amaierako proposamena zein izan den
- zer lortu nahi zenuten aldaketa horrekin

Lana banatuko duzue hori jakinarazteko. Taldeko kide batek laukian adierazitako lehen bi puntuak azalduko ditu, beste batek hurrengo biak eta, amaitzeko, hirugarrenak amaierako proposamena azalduko du, baita egindako aldaketa horrekin zer lortu nahi zenuten ere.

### 10.3. Gure lanak erakutsiko ditugu.

Jarduera bukatzeko, zuen lana beste pertsona batzuei erakutsiko diegu.

Hau egin dezakezue:

- Zuen lana antolatzeko egin dituzuen kartoi meheak ikastetxeko ageriko toki batean jarri, jende guztiak horren berri jaso ahal izateko.
- Kartoi-mehearen argazki bat egin eta, gelaren bloga baduzue, blog horretan jartzea iruzkin labur batekin, pertsona guztiek, baita zuen senideek ere, ezagutu ahal izan dezaten.

**11. JARDUERA****11.1. Egindako lanari buruzko gogoeta egingo dugu.**

Banaka honako taula hau beteko duzue:

	Erraza	Normala	Zaila
Lana nola egin zaidan			

Zailena zer izan den	
----------------------	--

	Txarra	Normala	Ona
Gure ideia nolakoa izan den			

	Txarra	Normala	Ondo
Eraldaketa nola gelditu zaigun			

	Batere ez	Apur bat	Nahikoa	Asko
Gure lanaren emaitzarekin ados nagoen				

	Batere ez	Apur bat	Nahikoa	Asko
Ikusi dudan				

Zer ikasi dudan	
-----------------	--

	Ia inoiz ez	Batzuetan	Askotan	Beti
Lana egiteko ideiak eman ditudan				

	Ia inoiz ez	Batzuetan	Askotan	Beti
Gainerakoen lana entzun eta baloratu nuen				

	Ia inoiz ez	Batzuetan	Askotan	Beti
Egin beharreko lanak taldean jarritako epeen barruan egin nituen				



## **OROKORTZE- ETA TRANSFERENTZIA-FASEA**

---

### **12. JARDUERA**

#### **12.1. Ikasitakoa aplikatuta**

Zuek ezagutzen duzuen toki bat aldatu edo birmoldatzeko proposamen bat nola sortzen den ikusi duzue.

Orain beste proposamen bat egingo zaizue, eta horri ere eman beharko diozue erantzuna.

Zuen ikastetxeak aldaketa bat behar du. Hezkuntza-komunitatearen ustez, ikastetxearen alderdi batzuk aldatzea lagungarria izango litzateke giro atsegina eta egokiagoa edukitzeko. Hainbat gauza aldatzea aztertzen ari gara, hala nola hormak eta haien koloreak, zokaloak zein ikasgelak, laborategia, gimnasioa eta abarrak adierazten dituzten kartelak, baita tresneriako elementuak ere (paperontziak, esekitokiak eta abarrak); hezkuntza-komunitate osorako toki atsegina lortzeko ideiak bilatzea da helburua.

Unitatearen hasieran esan dugunez, Joseph Beuysen ustez, artea pertsona askok parte har zezaketen ekintza izan behar zen. Eta pentsatzen zuen pertsona askoren laguntzari esker artea mundua aldatzera iritsi zitekeela. Izango al zinateke ikastetxea hobetzeko aldaketaren bat proposatzeko gauza?

#### **Egin ezazue, banaka, zuen ikastetxerako aldaketa-proposamen bat.**

Ikastetxearen hainbat irudi eta emandako materialak oinarri hartuta, irudietan agertzen dena hobetzeko proposamenen bat pentsatuko duzue.

Lehenik eta behin, zer birmoldatu nahi duzuen pentsatu behar duzue, eta horretan oinarriturik, aldaketarako proposamen grafikoa egin.

##### *12.1.1. Gogoratu:*

Jarduera garatzeko, **inprimatuak dituzuen irudi horien gaineko hainbat zirriborro eta proba egingo dituzue lehenik.**

Atsegina duzuen aldatzeko ideien bat lortzen duzuenean, proposamen landuagoa egingo duzue, irudia editatzeko proposatutako programa erabiliz.

1.- Ireki ezazue aldatu nahi duzuen tokiaren irudi digitala jasotzen duen artxiboa.

2.- Ordenagailua erabiliz, egin itzazue behar beste aldaketa zuen zirriborroetan, nahi zenuten irudi horretara iritsi ahal izateko.

3.- Inprimatu emaitza.

**13. JARDUERA****13.1. Ikasitakoari buruzko gogoeta egingo dugu.**

	Erraza	Normala	Zaila
Lana nola egin zaidan			

Zer ikasi dudan			
-----------------	--	--	--

	Asko	Gutxi	Batere ez
Gustura gelditu naiz egindako lanen emaitzarekin			

	Asko	Gutxi	Batere ez
Ikasitakoa baliagarri zait egin beharreko beste lan batzuetan aplikatzeko			